

Ahozko aurkezpeneko oharrak eta orientabideak

- Ahozko aurkezpena klaseko azken astean egingo da.
- 10 minutu ahozko azalpenetarako. Ondo neurtu denbora: mugatua izango da.
- edukia:
 - umearen aurkezpen labur-laburra eta elkarrizketaren gorabeheraren bat emaitzetan eraginik izan badu.
 - bideoaren zatitxo bat (3 minutu asko jota).
 - umearen jardunaren balorazio laburra (bereziki, istorioa kontatzeko erakutsi dituen trebetasunak edota zailtasunak aipatu) eta helduaren interbentzioaren balorazioaren alderdirik esanguratsuenak. Kasu batzuetan, interesgarria izan daiteke esaten dena adibidez hornitzea, horretarako grabaketaren transkripzioa erabiliz dipoitiben fitxategi batean.
- ez da lan idatzian esaten den guztiaren laburpena: aukeratu esanguratsuen dena.
- kontuan izan entzuleak (ez dute ezagutzen jardueran gertatutakoa).
- lana izenpetzen duten ikasle guztiak gai izan beharko dira aurkezpen osoa egiteko eta esandakoari buruzko galderei erantzuteko. Egunean bertan erabakiko da zozketaz nortzuk arduratuko diren lana aurkezteaz; gainontzekoek aukera izango dute bukaeran taldekideek esandakoa osatu/zuzentzeko.
- euskararen erabilera zaindu.